

2016KO APIRILAREN 5EAN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSO BILKURAREN AKTA.-

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Ibernalo Basterra Txasko and.

ZINEGOTZIAK:

Idoia Arenaza Sáenz del Burgo and.

Manuel Muñoz Morentin jn.

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jn.

Zuriñe Sáenz Sáenz and.

Mikel Herrador Iriarte jn.

Juanjo García de Acilu Pérez jn.

María Asun Quintana Uriarte and.

Susana Sáenz de Ugarte Corres and.

IDAZKARIA: Miguel A. Oliveira Barral; ekitaldiaren fede ematen du.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletzeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamaseiko apirilaren 5a izanda, hemeretziak eta lau zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren ohiko osoko bilkura egiteko Ibernalo Basterra Txasko Alkate andrearen lehendakaritzapean, Idazkari-Kontuhartzailea bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

1.- AKTEN ONESPENA

Lehendakari andreak galdetu du Udalbatzaren kideren batek esatekorik duen 2016ko martxoaren 1eko ohiko bilkuren aktari buruz. Horren kopia helarazi zitzairen Zinegotzi jaun-andre guztiei, oraingo bilkurarako deiarekin batera.

Aurkeztutako akta aho batez onartu egiten da. Lehendakari andreak onartu direla adierazten du; eta haien transkripzioa Akten Liburura egitea agintzen du, R.O.F 110.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

| Zkia. | Data | Edukia |
|--------------|-------------|--|
| 30 | 2016/02/25 | BANKU TRANSFERENTZIAREN ONESPENA |
| 31 | 2016/03/03 | OBREN LIZENTZIA EMATEA ARRABAL KALEAN ZOLARRIA EGOKITZEKO |
| 32 | 2016/03/03 | OBREN LIZENTZIA EMATEA GASTEIZ-LIZARRA ERREPIDEAN BARNE LANAK EGITEKO |
| 33 | 2016/03/03 | OBREN LIZENTZIA EMATEA SUBIDA AL FRONTON KALEAN BARNE LANAK EGITEKO |
| 34 | 2016/03/04 | UDAL IGERILEKUEN PLEGUAREN ONESPENA |
| 35 | 2016/03/07 | OBREN LIZENTZIA EMATEA GOTZAINDEGIARI ERAIKINAK ERAUSTEKO |
| 36 | 2016/03/07 | OBREN LIZENTZIA EMATEA GOTZAINDEGIARI ORBISOKO ELIZA MARGOTZEKO |
| 37 | 2016/03/07 | OBREN LIZENTZIA EMATEA ARKITEKTURA-OZTOPOAK KENTZEKO ERMITARAKO ERREPIDEAN |
| 38 | 2016/03/10 | GAINBALIOAK AURKEZTEKO LUZAPENA EMATEA |
| 39 | 2016/03/11 | GAINBALIOEN KITAPENAREN ONESPENA |
| 40 | 2016/03/14 | MAILEGUA ALDATZEKO ESPEDIENTEAREN ONESPENA |
| 41 | 2016/03/14 | GAINBALIOEN KITAPENAREN ONESPENA |
| 42 | 2016/03/15 | 2016KO KULTURARTEKOTASUN ARLOKO DIRU-LAGUNTZEN KONKURRENTZIA |
| 43 | 2016/03/16 | GAINBALIOEN KITAPENAREN ONESPENA |

| | | |
|----|------------|--|
| 44 | 2016/03/17 | OBREN LIZENTZIA EMATEA HERRERIA KALEAN BARNE LANAK EGITEKO |
| 45 | 2016/03/17 | OBREN LIZENTZIA EMATEA LA VILLA KALEAN BARNE LANAK EGITEKO |
| 46 | 2016/03/23 | IDAZKARITZAREN FUNTZIOAK BETETZEKO ORDEZKAPENA |
| 47 | 2016/03/23 | BANKU TRANSFERENTZIA |
| 48 | 2016/03/31 | 2016KO APIRILAREN 5EKO OSOKO BILKURA DEIALDIA |

3.- DIRUZAIN LANPOSTUA BETETZEKO BEHIN-BEHINEKO IZENDAPENA, EGOKIA BADA.

ZIOEN AZALPENA:

2016ko martxoaren 31ean idazkaritza-kontuhartzaitzak Udal honetan diruzaintza arloko funtzioen inguruan egindako txostena ikusirik non uztailaren 9ko 18/2015 Legeak aldatzen duen azaroaren 16ko 37/2007 Legea, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzkoa eta Irailaren 11ko 10/2015 Errege Lege Dekretuaren, Estatuaren aurrekontuan ezohiko kredituak eta kreditu gehigarriak esleitu eta enplegu publikoari eta ekonomia suspertzeari buruz beste neurri batzuk onartzen dituen; eta ezarri beharreko aukerak aztertu diren.

Aldaketaren ondorioz, 2015eko irailaren 13tik aurrera, egun horretan jarri baitzen indarrean Errege Lege Dekretu hori, 20.000 biztanle baino gutxiago duten udalerrietan diruzaintza eginkizunak ezin dituzte zinegotziek bete, baizik eta gaikuntza nazionaleko funtzionario batek.

Ikusirik txostenean dauden argudioek ondorioztatzen dute Idazkaritza-Kontuhartzaitza eta Diruzaintzako eginkizunak ezin dituela pertsona berak egin. Izan ere, funtzioak egiteko bateraezintasun argia dago 2002ko ekainaren 1605/2002 Kontseiluaren Araudian (CE, Euratom), Estatuko administrazioaren kontu-hartzaile orokorrak egin zuen 1998ko irailaren 1eko Ebazpenean, baita arlo publiko eta pribatuari buruzko COSO Txostenean adierazi bezala.

Ikusirik Udal honek ez duela sortu ezta sailkatu ere diruzaintza lanpostua; eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, Foru Aldundiari heldu edota adierazi behar zaio esandako lanpostua betetzeko bidea uztailaren 9ko 18/2015 Legean adierazitako aurreikuspenen arabera; zeinak 2016ko abenduaren 31tik aurrera aplikatu beharreko araudiaren arabera hauek izango dira, orokorrean:

- Diruzaintza funtzioen elkartzearen bidez, dagokion Autonomía erkidegoak ezarrita.
- Lankidetzaren lanpostuaren bidez, gaikuntza nazionaleko funtzionarioentzat gordetako lanpostua.
- Diputazio probintzialaren edo baliokideak diren entitateen edo uniprobintzialak diren Autonomia Erkidegoen bidez, laguntza teknikoko zerbitzuei esker funtzio hauek bere egingo dituztenek.
- Toki administrazioko beste Udalerriko gaikuntza nazionaleko funtzionario batek, ohiko lanpostuan eginkizunak metatzearen bidez.
- Aldi baterako, Toki-Erakundearen jarduketara bermatzeko helburuarekin, aurrez azaldutako irizpideak ezartzea ezinezkoa izango denean; eta horietako bat eratzen den bitartean, langile berak bete ditzake idazkaritza, kontuhartzaitza eta diruzaintzako funtzioak.
- Zentzu berean, udaletan edo udalerrien taldeetan hirugarren mailako idazkaritza lanpostuak betetzen dituzten bitarteko idazkariek diruzaintza lanak berezko eginkizunak bezala egiten jarraitzeko aukera daukate.

Ikusirik 18/2015 Legearen zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera, 2016ko abenduaren 31a arteko epealdi iragankorrean aurreko paragrafoarekin guztiz bat ez datozen aurreikuspenak ezarri direla, eta, ez dela aurreikusten inongo egoeran Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak bete beharko dituenik Diruzaintzako eginkizunak; Udalek esandako arauan ezarritakoari helduko diote, hau da:

- Gaikuntza nazionaleko funtzionarioa, haiei gordetako lanpostuak betetzeko sistemaren bidez.
- Hori posible ez balitz, aldundiko karrerako funtzionario bat izendatu daiteke, zeina gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioa izan daitekeen, laguntza teknikoko zerbitzuetara atxikia edo, ez balego, hango beste edozein funtzionario.
- Hori ere ez bada posible, toki erakundeetan lanean ari den karrerako funtzionario bat.
- Eta hori ere ez bada posible, bitarteko funtzionario bat izendatu ahalko da, honako hauen arabera: 7/1985 Legearen 92.bis.7 artikulua; apirilaren 12ko 7/2007 Legearen, enplegatutako publikoaren oinarriko estatutuarenaren, 10. artikulua, eta uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren, Estaturako gaikuntza duten funtzionarioentzako gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoaren, 34. artikulua.

Hortaz, bertaratuek aho batez onartu dute hurrengo akordioa:

LEHENA.- Arabako Foru Aldundiari eskatzea irailaren 11ko 10/2015 Errege Lege Dekretuaren xedapen iragankorretatik zazpigarrenaren eta 3. artikulua arabera, bertako funtzionarioak izendatu ditzala, 5.000 bizilagun baino gutxiagoko udalerrietan diruzaintza eginkizunak bete ditzaten, eta betiere has daitezela Arabako Lurralde Historikoan beharrezkoak diren lanpostuak sailkatzeko eta sortzeko prozedurak.

BIGARRENA.- Arabako Foru Aldundiari eskatzea, salbuespenez eta aldi baterako, udal honetako María Puy Uriarte García karrerako funtzionarioa izenda dezala behin-behineko diruzain, harik eta aldundiak bertako karrerako funtzionarioen artean diruzain bat izendatu arte.

HIRUGARRENA.- Akordioaren berri Arabako Foru Aldundiari ematea dagokion prozedura egiteko.

4.- GASTUAREN ARAUA GAINDITU IZANARI BURUZKO KONTUHARTZAILAREN TXOSTENAREN ONARPENA, EGOKIA BADA

Ikusirik abenduaren 13ko 38/2013 Foru Araua Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 7. Artikulua 4. Atala, ekainaren 18ko 2014/17 Foru Arauan ezarri bezala, gastu araua betetzen ez duten erakundeek, planaren ordean, Kontuhartzaitzak sinatutako komunikazioa bidali ahalko diote udalbatzari, eta hartan, erakundearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko da. Horretarako, ordea, erakundeek baldintza hauek ere bete behar dituzte:

— Diruzaintzako gerakinak eta aurrezki garbi positiboa erabiliz, ez-betetzea gertatu den ekitaldiko aurrekontua likidatu izana edo, hala badagokio, likidatzeko aurreikuspena izatea.

— Hurrengo ekitaldirako ezarritako defizitaren eta zor publikoaren helburuak betetzea.

Ikusirik txosten horretan jasotakoa eta Udal honen 2015 ekitaldiko likidazioa osatzen duten beste dokumentuak, defizitaren eta zor publikoaren helburuak betetzen dira, baita diruzaintzako gerakinak eta aurrezki garbi positiboa.

Ikusirik gastu araua ez-betetzeak izan dela gastu arruntak zein inbertsio gastuak Udalaren baliabide propioekin onartu izanaren ondorioa, betiere. Dena dela, Udalak

gastuen gehikuntza hau baliabide propioekin onartu duen arren, aurrezki garbi doituak positiboa izaten jarraitzen du, 243.584,36 €; hau da, diru-sarrera arrunten %19,62. Horrekin bermatzen da entitate honen finantza iraunkortasuna, erantsitako dokumentuetatik ondorioztatzen den bezala.

Hortaz, Kontu-hartzaitzaren txostena ezagutzera ematen zaio udalbatzari, non entitatearen finantza iraunkortasuna bermatuta dagoela ezartzen den.

Udalbatza jakitun da.

5. ALOKAIRURAKO ETXEBIZITZA SOZIALAREN OINARRIEN ALDAKETAREN ONARPENA, EGOKIA BADA.

ZIOEN AZALPENA:

Ikusirik Kanpezuko Udalak duen babes sozialerako etxebizitza alokatzeko oinarri arautzaileak aldatzeko beharra; izan ere, eskaintzak aurkezteko epean esleitu gabe geratu da.

Apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumenak ikusirik.

EZTABAIDA - PARTE-HARTZEA

Arenaza andreak azaldu du prozedura esleitu gabe geratu denez, izena emateko epe berria irekiko dela, amaierarik gabea, gutxienez 15 egunekoa, eta eskaeraren bat aurkezten den unean amaituko dena.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Onartu dute Basterra, Muñoz, Arenaza, Sáenz, Ruiz de Loizaga, Herrador, Quintana eta Sáenz de Ugarte Zinegotzi jaun-andreen aldeko 8 botoekin; eta García de Acilu Zinegotzi jaunaren abstentzioarekin

LEHENA:- Santikurutze Kanpezun dagoen alokairu sozialerako etxebizitza esleitzeko pertsonen aukeraketa egin ahal izateko oinarri arautzaileak onartzea

BIGARRENA:- Esandako oinarriak Udalaren web orrian, www.campezo.eus, eta iragarki taulan 15 eguneko epean argitaratu, eskaerak aurkeztu ahal izateko.

6.- JAIBUS ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA, EGOKIA BADA.

Arloko zinegotziaren ekimenez, Jaibus zerbitzuaren prezio publikoa arautzen dituen ordenantza aldatzeko behin-behineko onarpena egiteko egindako espedientea ikusirik, eta zinegotzi horrek azalduta.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 16tik 18rako artikulua eta apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumeneko 22 eta 47 artikulua ikusirik.

EZTABAIDA - PARTE-HARTZEA

Quintana andreak galdetu du gutxieneko adina aurreikusita dagoen. Izan ere, Vitalak 15 urte beteta izatea eskatzen du, NANaren bitartez egiaztatuta.

Alkate andreak esan du ez dagoela aurreikusita, eta zehatz-mehatz aztertu behar dela gaia.

Saenz andreak adierazi du oraindik ez dagoela erabakita.

Garcia de Acilu jaunak azaldu du bestelako egoeretan eta momentuetan gurasoen edo arduradunen baimenak eskatzen direla.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute.

LEHENA.- Jaibus zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen ordenantzaren aldaketaren hasierako onarpena.

BIGARRENA.- Behin-behineko onarpenaren akordioa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 30 eguneko epean Udal honen Iragarki-Taulan jendaurrean jarri, interesadunek espedientea aztertu eta egoki ikusten dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Jendaurrean egon den tartea igaro ondoren, egokia den behin betiko erabakia hartuko da balizko erreklamazioak erantzunez. Erabakiaren aurkako erreklamaziorik aurkeztuko ez badira, erabakia behin betiko bihurtuko da ordura arte behin-behinekoa izango den akordia.

LAUGARRENA.- Behin betiko akordioa -baita behin betikoa bihurtutako behin-behinekoa-, eta aldaketen testua oso-osorik argitaratuko dira ALHAOn

ERANSKINA

4. Artikulua. Prezioa da 5 euro/zerbitzuko

7.- LEHENDAKARITZAREN TXOSTENA

Lehendakaritzak arlo desberdinetako Zinegotzi-Ordezkariei hitza eman die azken bileraren ostean egindako gestioak azal ditzaten.

Saenz andreak, Kultura zinegotziak, azaldu du hurrengo ostegunean igerilekuen zerbitzua esleitzeko kontratazio mahaia bilduko dela.

Eta adierazi du IGO programa abian dagoela liburutegian, horren bidez liburutegiko euskarazko liburu bat maileguan har daiteke, eta itzultzean %35 deskontua duen txekoa jasoko da.

Arenaza andreak, Gizarte arloko Zinegotziak, azaldu du kontsultategiaren gaian erregistroko izen ematearen zain daudela esleipenaren tramitazioarekin aurrera egiteko.

Zerbitzu sozialen mapan lanean ari dira, eta dagoeneko egungo egoeraren eta beharren balorazioa aurkeztu da.

Quintana andreak galdetu du zeintzuk diren behar horiek. Arenaza andreak azaldu du beharrei buruz lurraldeen arauketa hartu dutela.

Azaldu du herritarrei arretarako lokalaren giltzak eman dizkietela erretiratuei haien beharretara egokitzen den azter dezaten. Bitartean, asanbladan hartu beharreko haien erabakiaren zain daude.

Garcia de Acilu jaunak adierazi du hainbat pertsona ez daudela ados irisgarritasun kontuarengatik.

Arenaza andreak azpimarratu du behin betiko erabakia ez duela elkarteak soilik hartuko; ondoren, guztien artean aztertu beharko da erabakirik onena hartzeko.

Muñoz jaunak, Ogasun eta Enplegu zinegotziak, aterpetxearen proiektua aipatu du; izan ere, teknikariei memoria labur bat egiteko eskatu zaie. Aldi berean, lanean ari dira izan dezakeen erabileran eta helburuetan. Hirugarrenez, beharrezko inbertsioa aztertzen ari da egikaritze-epeekin batera.

Araba Camper-i buruz, Aste Santua baino lehen ireki dela azaldu du, eta erabilera nahiko ona izan dela, nahiz eta publizitate gutxi egin den epe labur horretan.

Junta ekonomikoari buruz, lehioen gaia aztertzen ari da; izan ere, Eusko Jaurlaritzarekin akordio bat zegoen horiek aldatzeko, eta hurrengo hauteskundeetan hurbiltasunarekin ez dute galdu nahi.

Udalaren gastuen inguruan, aurrekontuaren betearazte egoera aurreikusitako bidea jarraitzen du; 25 mila euroko superabita eta kontuetan 265 mila euroko gerakina dago.

Izkiko azken bileran 2020 urteari begirako LGP aurkeztu da, eta Kanpezuko Udalaren parte hartzea oso interesgarria da.

Langileen kontratazioari buruz, martxoaren bukaeran egin da; eskainitako 2 lanpostuak betetzeko 24 eskaera aurkeztu dira. Hala ere, bete 22 horiekin bilerak egin nahi dira haien beharrak ezagutzeko eta aukerak aztertzeko.

Udal aldizkariaren zenbaki guztiak dagoeneko udal web orrian ikusgai dauela azaldu du.

Futbol zelaiaren proiektuari buruz, prestatzen ari da, eta hainbat sailatan aukeztu da gauzatzeko beharrezkoa den finantziazioa lortzen saiatzeko.

Bukatzeko, aipatu nahi du ekimen pribatu bat aurkeztu dela jabetxe bat irekitzeko, eta udalerrirako oso interesgarria irizten dela.

Ruiz de Loizaga jaunak, Hirigintza zinegotziak, aurreko udalbatzan egindako galderak erantzun ditu. Beraz, udal aldizkarian garbiguneari buruz agertzen den gastua bestelako zerbitzuak egitearen ondorioa izandako gastuari egiten dio erreferentzia, eta ez da horrela.

Mantenu informatikoaren gaian, hiru enpresek aurkeztu dute aurrekontua, baina gaia korapilatsua da, eta gaiari buruz dakien norbait gonbidatzen du azterketa egin ahal izateko.

HAPOri buruz (hiri-antolamenduko plan orokorra), AFA ari da horren azterketa egiten, eta zinegotziak isiltasuna positibotzat har daitekeela uste du; dena dela, maiatzean zehar Diputatuen Kontseiluak onartzea espero da.

Foru Planeko lanei buruz adierazi du 2015eko Erein deialdian aurkeztu zen eskaera ez dela onartu, baina aurtengo deialdian saiatuko da, berriro ere.

Berguillako hainbat bizilagunekin bilera izan dutela adierazi du zenbait gai jorratzeko, tartean araztegiarena.

Antoñanatik pasatzen den bide berdeari buruz adierazi du AFak zatia horretan lanak egingo dituela, eta hari eskatu zaikiola; batetik, proiektua ikusteko, eta bestetik, Berguilla inguruko konekxiorik gabeko tartea berreskuratzeko.

Ignaziotar bidearen inguruan adierazi du pasa den martxoaren 3an bilera batean parte hartu zuela, non lanaren marko orokorra aurkeztu zen. Horren arabera bidearen oinarriak adostu nahi dituzte horretarako gure udala partaidea den lan batzordea sortuz.

Izki Parke Naturalaren bilera batean parte hartu dute non 2015eko memoria eta 2016ko aurrekontua aurkeztu ziren, besteren artean. Gainera aipatu du datorren maiatzaren 22an parke nazionalen eguna izango dela.

Kuadrillako batzarra egin zen ere, horretan jorratzen diren gaiak azaltzeko eskatu zen. Azaleko moduan aipatu du bertan hitz egindakoa, gai-ordenaren araberako. Berriz ere, nabarmendu du batzarren informazioa udalei jakinarazteko beharra.

Herrador jaunak adierazi du esandako informazioa web orrian dagoela, eta batzarkideek jasotzen dutela, nahikoa haren ustez.

8.- MOZIOAK, ESKARIAK ETA GALDERAK

8.1. GAROÑA ZENTRAL NUKLEARRA BERRIZ IREKITZEARI BURUZKO MOZIOA

Segurtasunerako Kontseilu Nuklearraren (CSN) osoko bilkurak planteatzen du Santa María de Garoña zentral nuklearra berriro abiarazteko prozesua berriz irekitzen duten neurri berrien onspena.

Jarduneko gobernuak berriro abiarazteko prozesua aktibatzea onartezina da, are gehiago herritarren agindua benetan ez duenean.

Hauteskunde-kanpaina, Euskadiko alderdi guztiek Garoñaren itxierarekiko bere konpromiso adierazi zuten, Euskadiko PP barne; alderdi horren ordezkariak adierazpenak egin zituzten zentzu horretan.

AKORDIOAK

1. Kanpezuko Udalak guztiz errefusatu du Garoña zentral nuklearra berriro abiaraztea.
2. Kanpezuko Udalak Garoña zentral nuklearrari buruz jarduneko gobernuaren ematen ari den urratsak salatzen ditu.
3. Kanpezuko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jar dezala errekurtsio bat Garoñako zentral nuklearrean gai nuklearretarako behin behineko biltegi bat instalatzeabaimentzen duen ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren kontra.
4. Kanpezuko Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio ezen, euskal erakundeek eta bereziki Arabako erakundeek Garoñako zentralaren bizitza erabilgarria luzatzearen aurka behin eta berriz egindako adierazpenekin bat etorriz, ez dezala baimendu instalazioak berriz irekitzeko lizentzia berria.
5. Kanpezuko Udalak Estatuko Gobernuari eskatzen dio, gobernu berria osatu bezain laster, Segurtasunerako Kontseilu Nuklearraren konposizioa arautzen duen legezko markoa aldaketzeko, hortaz injerentzia politikoak ekiditzeko. CSN osatuko duten kideek materian adituak diren profesionalak izan behar izango dute; eskarmentu egiaztatua, arloko enpresekin loturarik ez eta alderdi politikoetan militantzirik gabeak.
6. Kanpezuko Udalak Espainiako Estatuko gobernuari izango denari Garoñako zentral nuklearra guztiz itxi eta desegiteko eskatzen dio.
7. Kanpezuko Udalak Espainiako Estatuko gobernuari izango denari eskatzen dio eredu energetiko berria lantzeko, demokratiko eta deszentralizatua, aurrezpena, eraginkortasuna eta energia berriztagarrien ekoizpena izango dituen oinarri.
8. Mozio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrari eta Gobernuari, Espainiako Estatuko Gobernuari eta Endesa, Iberdrola eta Nuclenor enpresei bidaliko zaie.

Alkate andreak udal bozeramaileei galdetu die bestelako konturen bat adierazi nahi duten. Garcia de Acilu jaunak galdetu du ludotekaren funtzionamenduari buruz jaso diren kexei buruz, eta guztien artean zerbitzua hobetzeko bidea bilatzeko proposatu du.

Saenz de Ugarte andreak adierazi du begiralearen ordutegia handitzea aztertu daitekeela, esaterako.

Muñoz jaunak erantzun du gai hau begiratzen ari dela.

Garcia de Acilu jaunak aipatu du ordenantza arautzaileak hutsuneak dituela erabiltzaileen adinari buruzkoak.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko arratsaldeko zortziak eta hamalau minututan. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.